EROSKI FUNDAZIOA zurekin

ELIKADURA ESKOLA

# TIX&LOY
## Eta dena egiten da hemen?



Hazteko energia


Elikadurari buruz egiten ari garen ikastaro honetan egiteko interesgarri bat eskatu nizuen: elikagaien jatorriari buruzko esperientzia bat, bisita bat, istorio ezagun bat... kontatzeko.
Nik behin, adibidez, nire lagun bati lagundu nion berak mendian duen baserrira. Ahuntz-talde bat dauka bertan, eta horrela ikasi nuen gazta behiek ez ezik, ahuntzek ere ematen dutela. Zein izan da zuen esperientzia?
Ni behin nire aitarekin joan nintzen berak lan egiten duen tokira: arrain-haztegira. Arrainez betetako igerilekuak daude! Bertan zaindu egiten dituzte arrandegian saltzeko nahikoa hazten diren arte.
Ez al da hobea itsasoko arraina?
Arraina lortzeko modu hori askoz hobea da ingurumenerako eta, gainera, horrela itsasoko ekosistemak babestu egiten dira.


Bada, nire auzokideak baserri batean egiten du lan. Erakutsi zidan zeinen ondo zaintzen dituzten oiloak gero kalitatezko arrautzak eman ditzaten.
Baserri bat al dauka benetan?
Bai. Bere amonarena zen. Eta berari txikitatik gustatu izan zaionez oiloak zaintzea, erabaki zuen arrautzak saltzen hastea. Tokiko freskoenak dira!



Nik nire aitonari lagundu nion sorora barazkiak eta begetalak landatzen dituen tokira. Eguna eman genuen letxugak, porruak, piperrak, tomateak... biltzen.
Eta zer egiten dute barazkiak usteldu ez daitezen? Nire etxean letxuga berehala zimeltzen da...
Zelaiak hiritik eta supermerketuetatik hurbil daudenez, bilketaren egunean bertan eramaten dituzte hara. Horrela, erosleak barazki horien zapore eta mantenugaia guztiz disfrutatzen du.




Neu ere nire osabarekin joan nintzen sorora. Baina behiak jeztera! Esnatu ninduenean gaua zen oraindik. Behi guztiak atera genituen bazkatzera, eta, gero, esnea nola ateratzen zaien erakutsi zidan.
Eta esne hori edan zenuen? Puaj!
Ez! Pasteurizatzeko makina batean sartu genuen. Makina horrek esnea edangarri egiten du. Horrela egunero goza dezakegu hori hartzen!
ESNEA
Oso ineteresgarria da dena. Lan ona egin duzue, neska-mutilak!


Nahi duzue partida bat jolastu?
Nik ezin dut. Nire gurasoekin joango naiz supermerkatura erosketak egitera.
Aita, ama, erosketak egiten lagundu dezaket?
Jakina, Tix, baina ez du balio postreak bakarrik hartzea, eh!
Ez, ez. Lasai.


¡¡¡TACHAAAN!!!
Que carro tan variado! Moi ben. Pero, por que colliches eses produtos?
Fixeime na etiqueta e merquei os que se fan aquí, na nosa comunidade autónoma.


Hauexek dira Kun-en auzokidearen arrautzak.
Arreta handiz zaintzen ditu bere oiloak eta arrautza hauek gozo-gozoak direla dio.


Arrain hau Ram-en aitak hazi du.
Horrela lagundu egiten diogu bere negozioan.


Letxuga hau Edda-k bildu zuen bere amonarekin.
Hemendik hurbil dagoenez, ia ez zuten ezertxo ere kutsatu supermerkatura ekartzean. Osasungarria eta ekologikoa!


Eta esne hau Loy-k hartu zuen atzo bere osabaren behiak jezten.
ESNEA
Oso erosketa ona egin duzu, Tix. Oso ondo iruditzen zait tokiko ekoizleei lagundu nahi izatea.
Bai eta ingurumenari ere. Goazen etxera erositako honekin guztiarekin afari ona prestatzera!

Bisita hau egin eta gero, ziur zure herriko produktuei buruz askoz gauza gehiago dakizula.

## Erakutsi artista gisa duzun gaitasuna eta marraztu nolakoa izan den zure esperientzia!

Erakutsi zenbat ikasi duzun gaur Tix eta Loy-ri bisitaren laburpen txiki bat eginez.

